



berria

LURRALDEAK

| ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | IPAR EUSKAL HERRIA | NAFARROA |

Aurreko urtekoa baino «arinagoa» da Bizkaiko sagardo berria, «orekatua eta ona»

Bizkaiko sagardo garaiari hasiera eman diote Zornotzako Uxarte sagardotegian. Itziar Lazkano antzezle eta antzerki zuzendaria 'sagardo laguna' izendatu dute.



Antonio Zamalloa, Itziar Lazkano, Arantza Atutxa, Bittor Ortiz eta Ainhoa Salterain, Zornotzako Uxarte sagardotegian, 2025eko sagardo berria aurkeztuz.

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena



Zornotzako Uxarte sagardotegian, Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak hasiera eman dio lurralde honetako sagardo garaia. Jose Antonio Zamalloa elkarteko presidenteak esan duenez, aurtengoa «aurreko urtekoa baino arinagoa» da. Horrez gain, «badauka bere estruktura, badauka zaporea; batzuek mingots puntu bat daukate». Presidenteak gaineratu du harrera ona izan duela: «Irten den sagardoarekin ez dugu arazo handirik izan jende aurrean, sagardotegian».

Martitzenean Uxarten egindako ekitaldian egon ziren, besteak beste, Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea, Arantza Atutxa Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatua, Eusko Jaurlaritzako Bittor Ortiz Nekazaritza, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea, Itziar Lazkano antzezle eta antzerki zuzendaria, eta Zamalloa bera. Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak Lazkano *sagardo laguna* izendatu du, eta hura arduratu da lehenengo txotx egiteaz. Urte osoan ordezkatu du Bizkaiko Sagardoa. Zamalloaren ustez, antzezleak «profil egokia» du, eta azaldu du «Bizkaiko filosofiarekin bat» egiten duelako aukeratua dutela. Lazkanok adierazi du «ohore bat» dela: «Denbora asko kentzen didan proiektu batean murgilduta egon arren, ezin izan nion ezetz esan Bizkaiko sagardogileen sektorearen proposamenari. Niretzat oso pozgarria da nigan pentsatzea euren enbaxadore izateko».

Uztari dagokionez, Zamalloak esan du arazo batzuk izan arren «orekatua eta ona» izan dela, eta ziurtatu du ekoizleak «konforme» daudela. «Hasieran, arazo handi bat izan dugu txingorragatik eta sagarraren harragatik, baina bigarren parteko uzta oso-oso ona izan da».

«Hasieran, arazo handi bat izan dugu txingorragatik eta sagar harragatik, baina bigarren parteko uzta oso oso ona izan da».

JOSE ANTONIO ZAMALLOA

Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko presidentea

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



sasoirik gabe geratuko aurten, sagardo naturalaren zortzi ekoizle eta egileren ahaleginari eta ilusioari esker».

Advertisement

Elkarteak ezagutarazi du aurtengo sagardoa iazkoa baino «arinagoa» izango dela, alkohol graduazio txikiagoa duelako. Horrez gain, gaineratu du «oso ezaugarri aromatiko interesgarriak» dituela sagardoak, eta gorputz «handiagokoa» dela.

Prezioen igoera

Bizkaiko Sagardogileen Elkartek jakinarazi du produktuak %10 eta %20 arteko igoera izango duela aurten. Sagardoa aurrerantzean ere «errentagarria» izan dadin, igoerak ezinbestekoak dira; hala arrazoitu dute. Oro har, prezio guztiak igo dira, eta sagardoa ere garestitu behar izan dute, sagardogintza «errentagarria» izateko.

GAIAK

- Bizimoduak
- Gastronomia
- Ekonomia eta finantzak
- Eraldatze industriak
- Turismoa eta ostalaritza
- Zamalloa, Jose Antonio
- Lazkano, Itziar
- Bizkaia
- Euskal Herria

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure
ekarpena



IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

 Iruzkin bat egin

ORDENATU

DATA



aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena





Kiroldegiak txilaba jantzi du

MIKEL ELKOROBEREZIBAR BELOKI



Bizkaiko emakume bat hil dute Castro Urdialesen

MAITE ASENSIO LOZANO

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**





NABARMENDUAK

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



Jolasetik jokora
MIKEL ELKOROBEREZIBAR BELOKI

Ilearen artea
MAIXA UTRERA PUELLES

ETB2n, 86 film;
ETB1en, bakarra
URTZI URKIZU

Ar
Go
«M
he
ko
inc
lar
GURU

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia
IKUSI >

Arratsaldekoa
IKUSI >


Goizekoa
IKUSI >

Badok
IKUSI >

Astekaria
IKUSI >

Kinka
IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**

